

LAU JAIO BERRI ZERAINEN: (HIZKUNTZAK, MATEMATIKA, INGURUNE...) ZERAINGOKO ESKOLA

HIZLARIA : Kontxi ----- ?, Zeraingo zuzendaria.

SARRERA/JUSTIFIKAZIOA:

“Matematika lantzea libururik gabe?. Laster jubilatuko naiz, ez naiz ausartuko Matematika libururik gabe lantzen?. Beldurra!”

Hauek izan ziren Kontxiren aurreneko buruhaustek. Baina animatu zen eta Antzuolako eskolako eredu gustukoa izana, aurrera egin zuen.

Gurasoekin bildu zen eta beraren erabakia azaldu zien: umeek ez zuten testu libururik izango matematika lantzeko.

Erabiliko zuen programa edota proiektuaz galdetu zioten gurasoek eta berak bere PRAKTIKA saldu zien: *“Gure Curriculumean 2. maila amaitzean lortu beharreko helburu minimoak ezarrita ditugu eta horrenbeste urte irakasten egon ondoren badakit zer maila izan behar duen ikasle batek 1.zikloaren bukaeran”.*

Eta kurtsoa hasi zen.

Eskolan hasi ziren egunean, bi ahizpek, berri bat ekarri zuten eskolara *“Uxue jai da!”* eta proiektua hasi zen.

Orain oso pozik dago eta benetan esan dezake: *“gauza bera lantzen duzu baina beste era batean eginda. Zer alde dagoen!. Liburuetan lantzen diren eduki eta prozedura berdinak lantzen dituzu baina umeen interesetik abiatuta eta hori asko nabaritzen da jarreretan eta emaitzetan.”*

Zerainen ume bat jaiotzea ez da oso arrunta eta lau jaiotzea are gutxiago eta lau jaioberriak bisitatzea proposatu zien ikasleei.

PROIEKTUA:

Proiektua 5 fase desberdinetan jarri zuten martxan. Aurreneko hiruetan hizkuntzak landu zituzten bereziki:

1. FASEA: Jaiotze berriak ezagutu ahal izateko hartu ziren erabakiak.
 - Jaioberrien gurasoei baimena eskatu.
 - Gurasoei egingo zizkieten galderak prestatu.
 - Bisitatza joan.
 - Argazkiak atera.
 - Galderak egin eta paperean jaso.
 - Erantzunak fitxara pasa.

2. FASEA: Eta guk?:

Norberari buruzko jakinmina azaldu zen eta beste galdetegi bat prestatu zuten beraien gurasoei galdetzeko. (3, 4, 5 urte, 1. eta 2. mailakoak).

Ekarritako erantzunekin eta argazkiekin norberaren fitxa egin zuten.

3. FASEA: Aurreko fitxa betetzeko galdera bat hau zen: Txikitan, etxean, aitag edo amak kantatzen al zizuten?.

Haurrak etxean kantatzen zien sehaska kantaren hitzak ekarri zituzten, eta lan berezia egin zuten: abestiak garbira pasa, poesia landu, txikienek irakurketa eta idazketa landu zuten, L.Z.koek horrez gain bertso bukaera. Abestiak ikasi zituzten etab.

4. FASEA: MATEMATIKA

Bakoitzaren haurtzaroa ezagututa txikitan oraingo antzik ba ote zuten begira hasi ziren eta jasotako datuekin eduki desberdinak landu zituzten:

- o Magnitudeak: altuera, pisua, denbora (urteak, hilabeteak, adinen arteko konparazioak....).
- o Datuen trataera: grafikoak osatu (proportzioak).
- o Problemen ebazpenak: zenbat urte zeuzkan Aitorrek Beñatek 3 urte zituenean?....
- o Ikasleen aniztasuna: errepikatzaile bat zegoen, kurtso bateko aldea baina bi hilabeteko diferentzia zuen besteekin soilik.

5. FASEA: GAZTELERIA-INGELESA

Haurrentzat familia zein inportantea den kontuan hartuta, zuhaitza genealogikoa egin zuten, baina gaztelaniaz eta ingelesez.

- o Etxeko datuekin norberaren fitxa eta zuhaitz genealogikoa osatu zuten. (Hiztegia ingelesez ere).
- o Famili mota desberdinak azaldu ziren eta aztertuak izan ziren. Kultur desberdinetako familiarak ere azaldu ziren eta haien ohiturak eta hizkuntzak plazaratu ziren (errimak, poemak, sehaska-kantuak...).

6. FASEA: L.Z.koek autobiografia egin zuten eta lanen aurkezpena.

Segurako eskolara joan ziren beraien liburuxkak aurkezteko.